

## **OHAR GARRANTZITSUA: EPEAREN HASIERA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO EZOHICO NEURRIAK**

UPV/EHUko ikertaldeei laguntzak emateko deialdia (2020) argitaratu da, nahi duten taldeak eskaerak prestatzen joan daitezzen. Hala ere, eskaera betetzeko aplikazio informatikoa ez da irekiko uztailaren 6ra arte. Egun horretan hasiko da eskaerak aurkezteko epea, zehazki 2020ko uztailaren 6tik abuztuaren 4ra arte.

Uztailaren 20a izango da 2.2 oinarrian aipatzen den sortu berri diren taldeen izendapena eskatzeko azken eguna.

### **Eskarrien aurkezpena.**

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoerak eragindako ezohiko egoera dela-eta, ahal dela, UPV/EHUko Egoitza Elektronikoan dagoen **Erregistro Elektronikoa** erabiliko da deialdiko 9.1 oinarriak ezartzen duen eskaera aurkezteko. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetza aukeratuko da hartzaile gisa. Halaber, erregistro hori erabiltzea gomendatzen da 11. oinarrian aipatzen diren alegazioak aurkezteko.

Ez da gomendatzen UPV/EHUko erregistro-bulegoak erabiltzea, ez eta posta-bulegoak ere, dokumentazioa paperean aurkezteko. Hala ere, erregistro-bulegoak erabiliz gero, kontuan izan behar da 2020ko maiatzaren 26tik aurrera alde zuzenetik hitzordua eskatuta baino ez dutela erantzungo, 09:00etatik 13:00etara. Esteka honetan kontsultatu ahal izango dira UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak:

<https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Leioa, 2020ko ekainaren 18a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA